


GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Guggenheim Bilbao Museoak 2024ko otsailaren 22an aurkeztuko du

Metahaven: *Kaosaren teoria*

Metahaven: Kaosaren teoria

- Datak: otsailak 22–ekainak 9, 2024
- Komisarioa: Manuel Cirauqui
- Film & Video aretoa (103)

2024ko otsailaren 22tik ekainaren 9ra, Guggenheim Bilbao Museoa *Metahaven: Kaosaren teoria* hartuko du, aurtengo programazioan Film & Video aretoan estreinatuko den lehen erakusketa. Areto hori bideo-arteari, ikus-entzunezko instalazioari eta mugimendudun irudiari eskainia da, eta 2024 honetan betetzen du bere hamargarren urteurrena.

Oraingoan, Amsterdamen bizi diren Vinca Kruk eta Daniel van der Velden artistek 2007an sortutako Metahaven kolektiboaren film-instalazio berezi bat izango da ikusgai. Egungo diziplinarteko praktiken aitzindaritzat hartzen da Metahaven, izan ere, askotariko baliabideak jorratzen ditu, besteak beste, mugimendudun irudia, diseinu grafikoa, erabiltzaile-interfazeak, ehungintza eta diskurtso teorikoa.

Kaosaren teoria lanean, giza harremanek mundu hiperkonektatu honetan duten konplexutasuna aztertzen du Metahavenek. Izan ere, bizi dugun munduan kalkuluz eta iragarpenez josia dago une bakoitza, baina, hala ere, etengabe agertzen dira ezustekoak eta gauza gertagaitzak, eta horrek egoera berrira egokitzea eta bere burua eraldatzera behartzen du jendea. 25 minutuko filmak haurren ikuspegia erakusten du, eta 'X' izeneko neskato baten (Valentina Di Mondo) eta 'Y/Z' izeneko emakume baten (Georgina Dávid) arteko elkarriketa- eta bizikidetza-momentuen inguruan garatzen da. Bi pertsonaien arteko senidetasuna ez dago zehaztua; samurtasuna, babesa eta jolasa dira bien arteko lotura. Beren elkarriketak oihartzun poetikoz eta hitz-joko burutsuz gainezka daude, eta hiri-periferiako eremu irekietan, ikastetxeko atean edo leku intimoagoetan (igogailu batean, gela batean) gertatzen dira. Leku horiei guztiei kutsu alegoriko eta oniriko nabarmena darie, eta horrek film osoa kutsatzen du esna-aldiaren eta loaldiaren arteko halako jarraipen-sentsazio batez. Jolasaren arintasuna denbora existentzialari eta grabitateari buruzko eztabaidekin tartekatuz, *Kaosaren teoria* piezak kontakizun ez-lineal gisa dihardu, eta zalantzan jartzen ditu ahotsaren eta pentsamenduaren arteko mugak, leku errealean eta alegiazko guneen artekoak.

Filma Amsterdam kanpoaldean grabatuta dago, eta kontraste nabarmena ageri du azpiegituraz eta hiriko bizitegiz osatutako paisaiaren eta piezak iradokitzen dituen poetika eta egitura irekien artean. Batzuetan, irudiaren konposizioak ikuspuntu edo pantaila bat baino gehiago erakusten du pantailaren baitan, eta horietako baten ingerada gorritz markatzen da motibo berri bat agertzen den bakoitzean, bideokonferentzia bat balitz bezala. Espazioari dagokionez, obra erakusketa-areto nagusian jartzerakoan, artilezko alfonbra handi bat gehitu zaio instalazioari, bisitariek modu materialean izan dezaten interakzioa filmak jasotzen dituen motibo eta testurekin. Hainbat datu eta bektore grafiko elkarrekin nahasten dira garraio publikoan ohikoa den tapizeria gogorarazten duen artile-testura trinko horretan, ingurune murgiltzaileen esperientzia konbentzionalaren kontrapuntu gisa.

Metahavenen obra zinematografikoarekin batera, artistek fotogramen baliokidetzat hartzen dituzten hainbat ehun-lan daude ikusgai. *Kaosaren teoria* obraren osagarri diren pieza horiek gelaurrean daude kokatuta, eta azken lau urteetan sortutako brodatu digitalak dira (horietako batzuk lehenengoz jarriko dira ikusgai): Pieza hauek— *Geziak* (2020), *Loreak* (2021), *Autobus eserlekuak* (2023), eta *Murmurioak* (2024)— ehungailuaren bidez eraldatutako kirol-jakak, plastikozko poltsak eta autobusetako tapizeria itxura duten tapiz txikiak barne hartzen dituzte. Horiekin batera *Istorioetan elkarbizitzan* (2022) izeneko triptikoa ere badago, eta *Bertsioak eta uhinak* (2020). Paisaia onirikoen, hegaztien murmurioen, interfazeen eta geografiaren justaposizio horretan, gure ziurtasunak zalantzan jartzera, eta enpatia, nortasun jariakorrak eta interdependentziak definitutako etorkizuna irudikatzen gonbidatzen gaituzte artistek.

Metahaven. Biografia

Vinca Kruk (1980) eta Daniel van der Velden (1971) Amsterdamen bizi dira, eta Metahaven kolektiboa sortu zuten 2007an. Beraiek garatzen dituen proiektuek hainbat praktika hartzen dituzte barne, nola diren zinema, idazketa, diseinu grafikoa, ehun-gaien diseinua, poesia, narrazioa eta instalazioa. Metahavenen obra nazioarteko erakusketa ugaritan egon da ikusgai, besteak beste, erakunde hauetan: ICA, Londres; MOMA PS1, New York; Izolyatsia fundazioa, Kiev; State of Concept, Atenas; Yerba Buena Center for the Arts, San Frantzisko; Stedelijk Museum, Amsterdam; Asakusa, Tokio; edo Tick Tack, Anberes. Gainera, taldeko erakusketa garrantzitsuetan parte hartu du: Artists Space, New York; Museum of Modern Art, Varsovia; Gwangjuko Bienala; Sharjahko Bienala; Busango Bienala; Glost:2561, Bangkok, besteak beste. Metahavenen lanak erakunde garrantzitsuen bildumetara agertzen dira, hala nola Sharjah Art Foundation, National Gallery of Victoria, M HKA, Victoria & Albert Museum, edo Stedelijk Museum, Amsterdam.

Vinca Kruk eta Daniel van der Velde aholkulari artistikoak dira Rijksakademien, Amsterdamen; ikertzaile elkartuak Antikytheran, Los Angelesen; eta Geo-Design MA saileko buruak Design Academy Eindhovenen.

Hezkuntza-jarduerak:

Inaugurazio-hitzaldia (otsailak 22)

Metahaven kolektiboa osatzen duten Vinca Kruk eta Daniel van der Velden artistak *Kaosaren teoria* erakusketaz eta beren lan-prozesuez arituko dira elkarrizketan erakusketaren komisario eta Guggenheim Bilbao Museoko arte-arduradun Manuel Cirauquirekin batera.

Film & Video (103 aretoa)

Film & Video aretoa bideo-arteari, bideo-instalazioari eta mugimendudun irudiari eskainitako gunea da, eta bai Guggenheim Museoen bildumetako bai nazioarteko artisten obrak aurkezten dira bertan.

2014an ireki zenetik, Film & Video aretoak oso artista berezien sorkuntza-lanak hartu ditu, besteak beste, honako hauenak: Christian Marclay, Ragnar Kjartansson, Fiona Tan, Ken Jacobs, Amie Siegel, Pierre Huyghe, Michael Snow, Javier Téllez, Diana Thater, Allora & Calzadilla, William Kentridge, Alex Reynolds, Sharon Lockhart, Monira Al Qadiri, The Otolith Group eta Marine Hugonnier.

Azaleko irudia

Metahaven

Kaosaren teoria (Chaos Theory), 2021

Kanal bakarreko filma, 25 min (fotograma).

Artisten eskaintza

© Metahaven

Argibideak:

Guggenheim Bilbao Museoa

Marketin eta Komunikazio Arloa

Tel: +34 944 359 008

media@guggenheim-bilbao.eus

www.guggenheim-bilbao.eus

Prentsa irudiak
Metahaven: Kaosaren teoria
Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.eus/eu) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 35 90 08, edo posta elektroniko bidez, media@guggenheim-bilbao.eus


Metahaven

Kaosaren teoria (Chaos Theory), 2021

Kanal bakarreko filma, 25 min (fotograma).

Artisten eskaintza

© Metahaven




Metahaven

Kaosaren teoria (Chaos Theory), 2021

Kanal bakarreko filma, 25 min (fotograma).

Artisten eskaintza

© Metahaven



Metahaven

Kaosaren teoria (Chaos Theory), 2021

Kanal bakarreko filma, 25 min (fotograma).

Artisten eskaintza

© Metahaven



Metahaven

Kaosaren teoria (Chaos Theory), 2021

Kanal bakarreko filma, 25 min (fotograma).

Artisten eskaintza

© Metahaven

